

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 21 udalerriri 400.000 euro eman dizkie ikastetxeak hobetzeko

Altsasu, Agoitz, Aranguren, Azagra, Baztan, Berbintzana, Funes, Irurtzun, Ituren, Legasa, Leitza, Mendabia, Olazti, Iruñea, Azkoién, Erronkari, San Adrián, Sartaguda, Tuterá, Luzaide eta Atarrabia dira onuradunak

Viernes, 27 de julio de 2012

Nafarroako Gobernuak tokiko 21 erakunderi 400.000 euroko diru-laguntza emango die Foru Komunitateko 23 ikastetxe publikotan hobekuntza- eta birmoldaketa-obra egikartzeko. Haietako guztiak Haur eta Lehen Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza-DBH) bigarren zikloko mailerik dagozkie, Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) gaur argitaratu den [242/2012 ebazpenak](#) jasotzen duenez.

Erakunde onuradunak honako hauek izan dira: Altsasu (21.285,43 euro), Agoitz (18.897,93 euro), Aranguren (24.648,28 euro), Azagra (1.813,67 euro), Baztan (5.859,13 euro), Berbintzana (4.538,36 euro), Funes (2.812,07 euro), Irurtzun (50.000 euro), Ituren (3.540 euro), Legasa (Bertizarana, 5.239,24 euro), Leitza (50.000 euro), Mendabia (26.422,15 euro), Olazti (50.000 euro), Iruñea (27.511,5 euro), Azkoién (905 euro), Erronkari (3.799,21 euro), San Adrián (4.914,55 euro), Sartaguda (31.722,38 euro), Tuterá (19.712,27 euro), Luzaide (19.444,81 euro) eta Atarrabia (26.934,02 euro).

Berrikuntzak egingo diren ikastetxeak honako hauek dira: Altsasuko Navarro Villoslada HI, Agoitzeko San Miguel HI, Arangurengo San Pedro HI, Azagrako HI, Erratzuko HI Baztanen, Berbintzanako HI, Funesko Elías Teres HI, Irurtzungo Atakondoa HI, Iturengo HI, Legasako HI, Leitza HI, Mendabiako DBHI, Olaztikoa Domingo Bados HI, Víctor Pradera HI (20.500,70 euro) eta Iruñeko San Juan de la Cadena HI (7.010,80 euro), Azkoiengo Juan Bautista Irurtzun HI, Erronkariko Julián Gayarre HI, San Adrián Antso X Jakituna HI, Sartagudako Nuestra Señora del Rosario HI, Tuterako San Julián Mendia HI (17.174,27 euro) eta Griseras HI (2.538 euro), Luzaideko HI eta Atarrabiako Atargi HI.

Zenbatekoek kasu gehienetan jardueren kostuaren % 60ri (BEZ kanpo) emango diote laguntza, 2012ko uztailaren 30a baino lehen hasi behar direnak eta azaroaren 1erako egikaritu behar direnak, organo eskudunak onartu behar dituen justifikatutako salbuespenak salbu.